



ARTZAIN ETA ERAKUSLE

Artzainen langintza ikasi nahi duten gazteei ofizioa erakusteaz arduratzen dira Segurola eta Orbeagozo, Arantzazun 24



Kalitate alemana 360° tan

Produktu ezinobe bat lortzeko egunero gogor eta pasioz lan egiten duen marka handia

Kalitateak Miele aukeratzten du

Miele-k funtzionamendu inteligente eta maneju intuitibo baten aldeko apustua egiten du etxetresna elektrikoetan eta bere diseinu berritzaileak txundituta utziko zaitu.

Mieleren lehentasuna iraupen luzeko eta konsumo baxuko produktu ezinobeak sortzea da.

3 arau horiek dira marka honek duen kalitate handia ziurtatzen dutenak eta honek merkatuan kokapen berezitu bat ematen dio.



20 urte zurekin

20 urteko produktuaren erabilera itxuratzen duten kalitate test zehatzenez 20 urtetarako kalitatezko biziraupena bermatzen die produktuari. Lehen egunean bezala funtzionatzeko prestatutako teknologia alemana erabiltzen du Miele-k.

Honen ondorioz Miele mende bat baino

gehiagoz zure etxerako tresna elektriko berritzaile eta iraunkorak sortzen diardu.

Erreferentzia onena

Miele-ren ardura, esperientzia eta ahaleginak marka alemana kalitate eta garapenaren erreferente izatea lortu du. Horregatik, Softtronic tanborra bezalako berrikuntzek Miele-k garbitze eta lehortze prozesuan duen perfekzio maila ekartzen dute. Erlauntz estiloko estruktura bereziak arropak zaintzen ditu, garbiketarako mekanika patentatu bat eta emaitza ezinobeak lortuz.

Miele-arentzat kalitatea emaitzetan eta bezeroen asebetetzean islatzen den filosofia delako, lana ongi egitearen pasioa eratzten jarraitzen du.

Ziurta ezazu Miele-ren banatzaile ofizialean:

**MILAR
LARRAMENDI**

Xabier Munibe, 11 • Julio Urkijo, 16
20720 Azkoltia Guipuzcoa
TEL: 943 85 18 97

Orain, jostailuetan ere 360°ko kalitatea

Miele banatzaile ofizialean aspiragailu bat erosteagatik, jostailuzko aspiragailu bat oparituko dizugu, etxeko txikiak ez dezaten utzi bazterrik xurgatu gabe.



**¡BENETAN
ASPIRATZEN
DU!**

Miele
SIEMPRE MEJOR

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behe,
(Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 116.a (2010eko apirila)

Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730 792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. N. Zinkunegi

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



azpeitia
udala

**Uztarririk
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkariaren

adierazitako


esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2010EKO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Zer diozu
Loiolako etorbideko
errotondaz? **13**

mamia

Patxi Aizpitarte.
Gipuzkoako
elizbarrutiko bikario
ohiari elkarrizketa **04**
Klik! Erniarraitz
Bertsozale Elkarteak
hamar urte **16**
Apustuak. Pastorkua
eta Mendizabal,
usadioa lehen
eta orain **20**

jakiteko

Santi Lazkano. Hari
eskainitako biografia
argitaratuko du
Uztarrria Komunikazio
Taldeak **34**


Ba al dakizu nuarben umeentzako
jolas parkea egiteko eskatuz sinadura
biltzeari ekin diotela? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarrriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberría, Valentina Agirre (Uztarrriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

PATXI AIZPITARTE

apaiza

“Munillak ez du trenea eta trenbidea sortuko”

Eliz urak majo arrotu zituen Munillaren izendapenak. Gotzain berriaz zer espero duen galdetuta, erantzuna garbi asko du Patxi Aizpitarrek.  Ainitze Agirrezabala

Uriarte gotzainak hala izendatuta elizbarrutiko bikario nagusi izan da bederati urtez. Berrituz elizbarrutiaren zerbitzuan jarri aurretik, ordea, denboralditxo bat hartu du “pixka bat freskatzeko”. Erromatik erantzun ditu Uztariaren galderak.

Zer moduz Erroman?

Gustura nago hemen. Esperientzia berria da, handia, ederra. Gainera, Erroman kultur eskaintza izugarria da. Lehengoan, epigrafia ikastaro bat egiten ari den talde batekin Priszila katakunbak era koalifikatu batean ikusteko aukera izan nuen.

Zer moduz moldatzen zara italieraz?

Ari naiz pixkanaka ikasten. Jendeak erraz esaten du gatzelaniaz ja-

kinez gero, italieraz erraz ikasten dela. Bai, antza badute, baina bereizten dira majo. Astean hiru arratsaldetan akademiara joaten naiz italiera ikastera. Bestela, Gregoriotarren unibertsitatean joaten naiz, zientzia sozialetako fakultatera. Mundutxo bat da. 132 naziotako 3.000 ikasleek ikasten dute bertan. Baina, italiera jakin gabe, ikasgai gehiegi ez hartzea erabaki nuen. Joaten garen tokian isilik eta errespetuz egoten erakutsi zidaten etxean. Gauzak begiz jotzen joateko eta, gero, hasteko hitz egiten.

Uriarte gotzainak elizbarrutiko bikario nagusi izendatu zintuen, Felix Azurmendirekin batera. Zer moduzko esperientzia izan da?

|||DATUAK|||||||

|||**Jaio.** 1955eko urriak 2.


|||**Herria.** Beizama. |||**Bizitokia.** Momentu honetan Erroma. |||**Lanbidea.** Apaiza. Gizarte gaiak ari da ikasten Erromako unibertsitatean.

Esperientzia zoragarria eta oso aberasgarria izan da, bai pertsona bezala, baita apaiz bezala ere. Baina, bederati urte hauek konplexuak ere izan dira. Bikario izateak inbertsio pertsonal gogorra eskatzen du. Nolanahi ere, suerte ona izan dut. Ez ginen lanerako taldea bakarrik, bizi ere elkarrekin bizi ginen eta, orduan, komunikazioa etengabekoa izan da eta horrek asko lagundu digu.

Zer lan egin duzue bederati urte horietan?

Gure gotzaina Zamoratik etorri

zen. Ezin da konparatu gizarte eta eliza bezala Zamora Gipuzkoarekin. Euskal elizbarrutiak konplexuak dira, gizartea konplexua delako. Hala, gure elizbarrutia [Gipuzkoakoa] hamabost eskualdetan edo artziprestaldetan dugu banatuta: Tolosaldea, Arrasate, Zarautz aldea... Gotzainaren iritziz Felix [Azurmendi] eta bion artean lan banaketa horrela geneukan eginda: Felix gehiago dedikatzen zen 15 eskualdeak bisitatze eta animatzera. Nire papera gotzaindegikoa zen gehiago. Kurian egoten nintzen, pastoral sail desberdinei –karitas, gaixoak, espetxeratuak...– jarraipena ematen. Urte hauetan landu ditugun gaiak garrantzitsuak izan dira. Parrokia bakoitzean apaiz bana iza-



Enak
E

tea zaila da eta laikoek, gizon emakumeek, geroz eta paper gehiago dute elizan. Orduan, pastoral barrutiak animatzen eta berriak bultzatzen jardun gara. Kristau esperientzia ere zaindu dugu. Garai batean jaiotzen zen dena bataiatua zen eta bataiatzen zen dena kristaua. Baina, gaur, kristau izatea oso konplikatu da. Prozesu serioa egin behar da eta, beraz, talde biblikoak bultzatzen aritu gara. Pastoral sozio-karitatiboa deritzona ere urte hauetan garatu egin da. Ni apaiz gazte Azpeitira joan nintzenez, toxikomanoak ziren arazo nagusi. Gero, HIESA izan zen. Orain, etorkinak, etxerik gabeko jendea... Karitas oso adi egon da urte hauetan pobrezia berriei erantzuteko. Bakearen gaia ere guretzat garrantzitsua izan da. Euskal gizarteak bizi duen gatazka presente egon da. Bederatzi-hamar urteotan bakearen inguruan esandako guztia *Bakerako hitzak* liburuan bildu dugu. Liburu mar-dula da. Oraindik han jardungo dute Espanian hau eta bestea esanez. Irakurri dezatela zer esan duen hamar urtetan eta ea zeinek esan duen gehiago eta hobeto.

Joan Maria Uriarte ezagutzeko izan duzu aukera. Nolako gizona da?

Bere argazki bat ikustea nahikoa da. Bere ideiekin ados egon zin-

tezke edo ez, baina berezko ontasuna du Uriartek. Bihotz oneko gizona da, harrera onekoa eta sentsibilitate finekoa.

Eta, elizgizon moduan?

Artzain on bat izan da. Gotzain batek ez du izan behar inspektore bat. Bera gotzain zela segurtasun handia sentitu dugu. Entzuten eta errespetatzen daki, konfidantza eskaintzen. Apaiz eta gotzain bezala, bere ibilbidea guztiz interesgarria da. Gero, igoa, elizan askotan falta izaten dena; begirada oneko gizona da Uriarte. Mundu hau, bizitza hau, Euskal Herria... beti zentzu positibo batean ikusten du. Gero, noski, kontzilioko gizona izan da. Laikoengan sines-ten du. Bera ez da artzain bakarrik izan, maisu izan da. Hamar urtetan zenbat omilia, zenbat idatzi, zenbat liburu, zenbat erakutsi digun. Gotzain baten majisteritza bere irakaspena da.

Prentsan saldu izan da Munilla gotzain izendatu zutelako utzi zenutela zuen kargua. Hori horrela da edo zuen erabakia aurretik hartutakoa izan zen?

Guk Uriarteri esana genion guk berarekin bukatu nahi genuela. Ardurazko leku hauetan ezin daiteke bat betiko egon eta urte batzuk egin ondoren ia utzi egin behar da kargua eta berriro normaltasunera bueltatu. Berriro elizbarrutiaren zerbitzuan jarri aurretik denboralditxo bat nahi genuela esan genion, pixka bat freskatzeko, osatzeko eta geure buruak jazteko. Bera ados agertu zen. Gero Munillarekin bildu ginen eta gure asmoak azaldu genizkion. Berehala onartu zigun, arazorik gabe. Beraz, guk Uriarteri esana genion eta, gero, Muni-llari esan. Hori horrela izan da.

Munillaren izendapena elizbarrutiko kideen iritzia kontutan hartu gabe eman dela kexatu dira. Bestalde, gotzain berriak elizaren alderdirik kontserbadoreena ordezkatzeko duela ere esaten da. Zer irudituz zaizu

“Bikario izateak inbertsio pertsonal gogorra eskatzen du”

“Euskal gizarteak bizi duen gatazka presente egon da urteotan”

► izendapena eta egon den erreakzioa?

Konplikatu da hori jakiten. Kontsultak egin egin dituzte, baina kasu zenbateraino egiten duten... Niri iruditzen zait gotzain baten aldaketa garrantzitsua dela elizbarrutiko bizitza batean. Orduan, jendea heldua eta arduratsua nola den bere iritzia ematera atera da eta nik uste dut hori normala eta bidezkoa dela. Argaiarekin eta, batez ere, Setienekin eta Uriarterekin prestigio handiko eliza izan da Gipuzkoakoa. Nortasun eta itzal handikoa. Oso maitatuak eta errespetatuak izan dira. Jendearengana heltzen saiatu dira. Donostiako elizbarrutiak aurten 60 urte beteko ditu. Gure eliza ez da aurtengo urtarrilean jaio, gotzain aldatzarekin. Orduan, nortasuna duen eta egituratutako eliza batek ezin du horrelako gauza baten aurrean ezer esan gabe geratu. Erreakzioa normala da. Jendeak hitz egiten du inporta zaiolako.

Zer espero duzu Munillaz?

Hirurogei urte hauetako historia, gure nortasuna, gure eliz eredu... errespetatuz eta zainduz bere ekarpen propioa egin dezala. Hori da nik desiratzen dudana. Munillak ez du trena eta trenbidea sortuko. Gipuzkoako eliza martxan dagoen trena da. Bera trenera igo da eta tren horretan gauzak antolatuta daude. Trenaren barruan, nahi baldin badu, jarri dadila gidaritzan, baina trenean goazen guztiak errespetatuz, onartuz, animatuz. Entenditzen da, ezta? Egin ezin dena da guztia hankaz gora jarri.

Zer diozu Jose Antonio Pagolaren liburuaren gorabeheran gertatzen ari denaz?

Pixka bat entenditzen dut liburu honek eliz urak arrotu izana. Aurreneko aldiz irakurri nuenean, neure buruari esaten nion: 'Jesus horrelakoa izan bazen, Jesusek horrela jokatu bazuen bizitzaren eta heriotzaren aurrean, hi zertan ari haiz'. Noski, niri krisi hori probokatzen dit, baina eliz-erakun-

dean daudenei ere uste dut probokatzen diela. Nik uste dut batek baino gehiagok esan dezakela 'beno, liburu honek esaten duena egia baldin bada eta Jesus honelakoa baldin bazen zer egiten ari gara eliza mailan'. Horren aurrean bi gauza egin litezke: bat zure bizitza Jesusen bizitzaren argitan jartzen saiatu edo, bi: liburuaren kondenatu. Errazena da, ezta? Niretzako beldurgarria eta penagarria izango litzateke eliz mailan guk Jesusi beldurra izatea, krisian jartzen gaituelako. Igoal, entzun nahi ez ditugun gauzak esaten dizkigulako, edo, bizitza aldatzera gonbidatzen gaituelako. Niretzako, garbi esango dut, Jesusi buruz idatzi den libururik mardulenetakoa eta ederrenetakoa da. Pagolak egundoko ahalegina egin du gu denok Jesus historiko horretara hurbiltzeko. Nik uste dut pertsona askoren bizitzak astindu dituela. Nik uste dut on egiten digula etxekoei, etxekoei esan nahi dut elizbarrutikoei, baina, batez ere, on egiten die momentu honetan bila dabiltzane. Guk pentsatzen duguna baino jende gehiago dabil fedearen eta elizaren mugetan bila. Ez dut esaten elizaren bila edo gure fedearen bila, ez. Bizitzari zentzua eman nahian, baizik.

Aurrera begira zer asmo dituzu?

Datorren ikasturtea, 2011. urte erdira arte, hemen igaro nahiko nuke. Gero, elizbarrutiko beharren arabera, gotzainak bidaltzen gaituen tokira. Greziarrek bizitza zikloetan banatzen zuten. Apaiz bezala nik bi nahiko luzeak bete ditut. Azpeitian, hamabost urtez eta, orain, bikario beste hamar. Gero, hirugarrena hasiko dugu, Erromako etapa honen ondoren.

Azpeitian pasatako urteez

“penagarria litzateke eliz mailan Jesusi beldurra izatea”



Aizpitarre Erromako apaizen egoitzan. Erromako egonaldian hantxe bizi da.

||| AZPEITIAN |||||

Apaizgai zela etorri zen Aizpitarre Azpeitira, Kepa Susperregirekin, 1985ean. Aizpitarre 1986an apaiztu zen. Hamabost urte egin zituen Azpeitian, Uriartek bikario nagusi izendatu zuen arte. Azpeitian pasatutako urteetan, parrokiako lanean aritu zen: mezak eman, hiletak, ezkontzak, katekesia... guzti horretaz arduratu zen. Azpeitian igarotako azken urteetan osasun-pastoraltzako arduraduna izan zen elizbarrutian.*

zer oroitzapen dituzu?

Sasoi oneneko urteak izan ziren. Nire apaiz gazte urteak Azpeitian joan ziren. Oso oroitzapen onak ditut. Azpeiti leku ona da apaiz izanda edo apaiz izan gabe bizitzeko. Jendearrekin harremanak erraz egiten dituzu eta harremanak egiten dituzun neurrian herriaren berotasuna jasotzen duzu. Keparekin harremana mantentzen dut eta, baita, parrokiaren inguruko eta parroki inguruko ez den jendearrekin ere. Jende asko ezagutu dugu hor. Ahal dudanean joaten naiz, lagun arteko bazkariren bat edo afariren bat dela.

Jaioterrira joaten al zara?

Bada denbora pixka bat Beizama joan ez naizela. Uste dut hileta batean izan nintzela azkenekoz. Urtebete pasa izango da. Lehen, Azpeitian nengoela, nire osaba-izebek zuten herriko ostalua eta gehixeago joaten nintzen.*

“nire sasoi oneneko apaiz urteak Azpeitian joan ziren”

Ahaztutako gatazkak

U

daberria etorri da berriro ere gure artera eta naturak urteroko zikloa bete du beste behin. Hasiera eta bukaera logikoak dituztela prozesuek erakusten digu hain gutxi apreziatzen dugun naturak, baina badirudi gizakiok ez dugula ikasten inguruan ditugun adibide hauetatik. Konpondu ez diren Hirugarren Munduko gatazkak dira horren adibide argia.

Gatazka horien hasiera arraza txuriko giza-kien aberastasun eta botere gosean aurkitzen da gehienetan. XIX. mendean europarrak, bere nagusitasunaz zihur, zibilizazioa eta garapena zabaltzeko misioa eman zioten bere buruari, etekina zutelarik ezkutuko helburu bezala. Afrika izan zen beren jomuga eta 1885eko Berlingo konferentzia tamalgarrian kontinente berri hau beraien artean banatzea erabakin zuten. Horrek eman zion hasiera kontinente horren espoliatioari, etenik izan zuena XX. mendeko lehen erdialdean.

II. Mundu Gerrako basakeriaren ostean Europa suntsituta gelditu zen eta Europa mundu mailan bigarren maila batera igaro zen amerikarren eta sobietarren mesedetan. Orduan ikusi zen zenbateraino kostatzen zaigun gizakioi gauzei bukaera txukun eta logiko bat ematea. Horrela, herrialde hauei independentzia eman zieten politikoki baina interes ekonomikoak tarteko beraien aldeko agintariak jarri zituzten boterean. Hau izan zen gaur egun kontinente horretan aurkitzen ditugun konpondu gabeko gatazken jatorria.

Horren adibide garbia dugu Mendebaldeko Sahararen kasua. Bere baliabide naturalek erakarrira europearrek ustiatu zuten mende luze batez, Frantziak eta Espainiak, hain zuzen. Marokok bere independentzia 1956an lortu zuen, baina Saharak espainiarren esku jarraitu zuen 1975 arte: Franko diktadorea agonian zen bitartean Madrilgo Akordioen bitartez Maroko, Argelia eta Mauritaniari bere kudeaketa transferitu zioten arte. Marokok, Frantziaren laguntza irmoare-



markel mendizabal

III Gogoratu ez garelak
pentsatzen edo sentitzen
duguna, erakusten
duguna baizik

kin praktikan lurralde hori bereganatu zuen eta saharatarrek bere herrialdeak kanporatuak izan ziren Argeliako basamorturantz. Han jarraitzen dute gaur egun ere.

Lehen munduaren erantzuna

Oso desberdina izan da mundu garatuaren erantzuna egoera horren aurrean. Gobernuak, NBEen babesarekin, ez dira gai izan konponbide bat aurkitzeko, baina herritarrek beste erantzun mota bat eman diote. Horren adibide garbia daukagu gure herrian udako hila beteetan kalean jolasten ikusten ditugun haur saharatarren presentzia pozgarria.

Hedabideek ahaztuta dituzten gatazka horien aurrean herritarrek saharatarren eskubi-deen aldeko borroka bizirik mantendu dute. Kanpamentuetara bisitak, hitzaldiak, karabana solidarioak... dira horren testigantza.

Bere lan orduetatik kanpo gure gobernuen utzikeria ahaztuarazi diete herri horietako biztanleei. Gogoratu ez garelak
pentsatzen edo sentitzen duguna, erakusten duguna baizik.
Bejondeizuela herri horien borroka duina bizirik mantendu duzuen guztioi!*



Berrietako hegiak

Hegia asko ditu gure errealitateak. Ertz asko, eta ertz adina mundu ikuskera eta sentipen. Ertzak ertz, eta erpinak erpin norbera bere muturrean gotortuz gero, ezinezkoa da denon artean errealitate bat, eta bakarra, erdiestea.

Loiolan, 2006an, hiru hegi, hiru erpin, eta beste horrenbeste mundu ikuskera bildu eta gure herriak jasaten duen gatazkari irtenbidea eman asmoz, batzen gaituen horri haritik tiraka, errealitate berri bat sortu nahi izan zuten. Elkarri puntak kamustuz, eta errealitate leun eta baketsua sortzea helburutzat hartuta bildu ziren EAJ, PSE-EE eta Batasuneko kideak.

Baina hariari tiraka ari denak sokak tenkatu eta estutzen ditu, eta soka hautsi eta berriro norbera bere hasierako posiziora joateko arriskua hor da. Eta han izan zen, Arrupe etxean. Hantxe bukatu zen dena, hasi zen bezalaxe joan zen. Karpetak itxi eta norbera bere etxera, bere ertzera.

Eta gure herriak berdin jarraitzen du. Gertatzen denari so eginez, eta gauza askoren erantzuna jakin gabe oraindik.

Baina gertatu gauza asko gertatzen dira; guk dakizkigunak batzuk, eta ez dakizkigun asko ere gertatu, gertatzen ariko dira.

Gertaera harrigarriak

Norberak bere lehentasunak izaten ditu gertaeren sailkatze lanetan. Badira gure herria inoiz axola izan ez zaienak; badira asko maite dutenak; badira kirola besterik axola ez zaienak... Eta badira lehentasunak inongo zentzurik gabe jartzen dituztenak ere. Zentzurik gabeko hori EITB bada, ordea, zentzurik eza interes bihurtzen da.

Bada azken hilabeteen zur eta lur utzi nauen gertaera bat. Martxoaren 11n azaldu zen, jakinarazi zuten, Jon Anza Tolousseko (Frantzia) erietxe bateko gorputegian zela hilik azken hilabete luzeetan. Eta deskuidotan, han zutela erdi ahazturik, identifikatu



||||||| **ihintza agirretxe** |||||

|||| **Ikusten ari nintzenaz lotsatuta sei albiste pasatu nituen. Telebista publiko bat ezin da hain lotsagabea izan**

gabe. Egun horretatik gutxira autopsia egin zioten ospitale hartan bertan; Anzaren familiaren konfiantzazko medikurik gabe. Istiluak izan ziren egun hartan ospitalearen aurrean bildu zirenen eta poliziaren artean.

Bada nahiko gertakari arraro eta nahiko berezi albistea, nire ustez, garrantzitsu izateko. Baina ez, ETBko albistegietarako lehen-tasunak beste batzuk ziren egun hartan: Mafia errusiarreko hainbat lagun atxilotu zituzten; Zornotzako Euba auzoan txahal txiki bat lapurtu zuten, bertan akatu, garbitu eta txikitu ondoren eraman zuten; eskola 2.0 egitasmoa martxan jarri, eta Eusko Jaurlaritzak ordenagailuak dagoeneko eraman ditu eskoletara; genero indarkeriaren ondorioz aurtan dagoeneko hiru emakume erahil dituzte... Sei albiste. Sei albiste eta hamabi bat minutu behar izan genituen ETB1 ikusten ari ginenok Jon Anzaren autopsia egunean Tolousen zer gertatu zen, zer gertatzen ari zen jakiteko. Sei albiste pasatu nituen ikusten ari nintzenaren aurrean lotsatuta. Ezin da telebista publiko bat hain lotsagabea izan. Badira ulertu ezin ditudan zentzugabeko hainbat gertakari, oraindik munduan.*



Gure herriak

naiart

serigrafia eta errotulazioa

Arana Kalea 10. 20730 Azpeitia

Tel. / Fax: 943 08 05 45

Alaitz: 619165071

Mikel: 665720871

Naiart@euskalerrria.org

eskaparateak



ibilgailuak



serigrafia



Gure web orria ikustera gonbidatzen zaitugu

www.naiart.net

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



GORA. Erakusleihoetan kartelak euskaraz.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urratsa eman du lokal honen jabeak. Gustua ematen du erakusleihoetan euskarazko kartelak ikustea. [Uztarria](#)



BEHERA. Postontzia jarritz gero askoz hobea.

Postariak euskaraz ez dakielakoan-edo, Erdikaleko bizilagun honek gaztelaniaz jarri du buzoiko kartela. Begiko mina eta dena ematen du. [Uztarria*](#)



Axun Aizpuru.

ESANA DAGO

III “Lau urte hauetan egin dudana jendaurrean aurkeztea pozgarria da”

III “Inaugurazioan bi gizon inguratu –haietako bat pintore profesionala– eta gauza on batzuk bazeudela esan zidaten”

AXUN AIZPURU
margolaria

III “Aitonarekin sukaldean soinua eta panderoa jotzen ikustetik ezagutzen nituen trikitilari gehienak”

IÑAKI ARANAGA
‘Auntxa’-ren biloba



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zein da egokiena?

Zalantzarik gabe oso errealitate desberdinak daude gaztetxoek kirola kudeatzeko moduari dagokionean. Sarritan eta toki askotan eztabaidagai bihurtzen da hori, instituzio publiko eta pribatuen artean, batez ere.

Gurean, Gipuzkoari dagokionean, adin jakin bat arte kudeaketa hau Foru Aldundia, udal eta ikastetxeen esku dago, kirol federazio eta kirol klubengatik. Filosofia argia da: 'multikirola' edo kirol aniztasuna sustatzea kirolari gazteen artean. Filosofia horren azpian zenbait helburu aurkitzen dira: kirol mota guztiak sustatu edo laguntzea, be-

rauetan kantitatea eta kalitatea bermatzea eta kirolari hobek sortzea.

Kudeaketa modu desberdinak aurki ditzakegu. Guregandik hurbil, Bizkaian adibidez, aldaketak hain nabariak ez badira ere, ematen dira eta federatu ahal izateko baimena adin txikiagoetatik ematen da. Aldaketa horiek are nabariagoak dira Frantzia eta Herbeheretan. Haietan klub eta federazioek askoz pisu handiagoa dute gaztetxoek kirolaren kudeaketan berauek oso txikiak direnetik.

Hobea zein den esatera ez naiz ausartuko, agian nire ezjakintasunak bultzatuko nau ez



aitor zulaika

bustitzera. Baina, seguru nagoena da, eztabaidatzen mahai batean jarri eta kafe ugari hartzeko modukoak izango litzatekela erakunde guztietako kideak egonez gero. Zenbait gauzatan erreflexionatzera behintzat eraman nauten hainbat konturik. Adibidez, nolatan kasik ezinezkoa duen gaztetxo batek astean hamar orduz entrenatzea saskibaloian; eta igerian, gimnasia erritmikoan, tenisean edo hipikan, berriz, bai. Zergatik bultzatu nahi da kirolean multikirola, eta gauza bera kulturaren ez; hau da, musika atsegin duena, biolina jotzeaz gain, esku soinua jotzera bultzatu.*

IKUSTEKOAK



▲ KARAKOLEKO IGOGAILUA BETI NARRASTUTA.

Olazko Amaren plazatik Etxe Alaira igotzeko, karakolean dagoen igogailua ez dute behar bezala erabiltzen batzuk. Igogailu barruko botoiak zerri eginda izaten dira, karkaxa eta txistua botatzen baitute. Hori eginez ondo pasatzen duenak norbere etxeko igogailuan egin ditzala halako zerrikeriak. 📞 Nerea Uranga*

MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



1, 2 eta... klik!

ARGAZKIAK. Azpeitian betidanik izan da sokamuturrerako zaletasuna. Azpeitiko belaunaldi desberdinek gozatu dute tradizio horren indarra. Ohitura hori behin eta berriz erretratuetan jasotzen ez dira nazkatu azpeitiar argazkilariak. Urtero, txukun-txukun eta lanak ongi eginda etortzen zaizkigu Argazkilari Elkarteoak erakusketekin. Ohitura horretan urteak daramatza Joxe Ramon Larrañagak. Zorionak!



alex silva



Ziklogenesi lehergarria

HAIZETEA. Zer arraio da hitz hori? Horrela ibili ziren gozotegi ezagun baten mahaiaren inguruan, martxo hasieran. Orain galdetuz gero, ziur badakitela. Azpeitian gogor jo zuen haizeak eta grazia gutxi egingo zien autoen gainera etxeetako teilatua erori zitzaienei.



Berdintasuna lortuta

LILATOIA. Ni jaino berri nintzela antolatzen zuten lehen aldiz Lilatoia Donostian. Zer ote zen hura? Lasterketa, baina lilaz jantzita? Antza denez erreibindikazio helburua zuen, gizonetako eta emakumetako lasterketetan trataera berdina lortzeko. Bai eskubideei, bai parte-har-

tzaileei eta bai garaikurrei dagokionez. Batzuk diote dagoeneko hori pasatuta dagoela. Dagoeneko berdintasuna lortuta dagoela. Nonbait, emakume azpeitiarrek ez dute hori uste eta 57 izan dira aurtan Lilatoia-
ren XXI. edizioan parte hartu dutenak.*

INKESTA

zer diozu LoioLako etorbideko errofondaz?

 Ainitze Agirrezabala

JON GARAGARZA

komertziala



"Alde batetik, pena da betiko panoramika eder hori haustea,

baina egin beharrekoa ere bazen obra hori. Izan ere, egungo beharretarako arriskutsua bihurtu da gune hori. Hala ere, ohituko gara eta ederra izaten jarraituko du".

ARKAITZ IMAZ

fruta saltzailea



"Loiolako etorbidean errotonda egitea oso ondo iruditzen

zait. Zirkulazio handiko eremua da hori eta praktikotasunari eta segurtasunari begiratuta egin beharreko obra zen".

JUANI GURRUTXAGA

esne saltzailea



"Trafikoa arindu asmoz igoal beharko zen errotonda, baina

pena handia ematen dit. Lehen askoz hobeto zegoen. Errotonda horrekin Loiolako etorbideak xarma galdu du".

IÑAKI AZKUE

langilea



"Beharrezkoa zen etorbide horretan errotonda egitea. Ikasberriko irteera

hori ez zegoen batera ederra eta gune horretan mugitzen den trafikoa kontuan izanda, arrisku handia sortzen zen".*

Hitanoa Azpeitian

Aspaldi ez dela irakurri dut Azpeitia herri oso euskalduna izanik, bertako gazteek hitanoa erabiltzerakoan neskei toka hitz egiten dietela noka beharrean, eta hauek berdin mutilei, eta baita neskek ere beraien artean. Horren zergatia, berriz, gurasoei leporatzen zien, semeak hika tratatzen zituzten bitartean, alabei zuka egiten zielako. Ondorioz, noka-ren erabilera hutsaren hurrengo dela, gazteek, orokorrean, ez dutelako ezagutzen behar bezala.

Aitortu behar dut puntu honetan niri dagokidan errua. Senide artean hitanoa beti era arruntean erabili arren, semeari hika eta alabari zuka egiten diet, eta norabide berdina darabilt bilobekin ere. Beraz, ez nahiz egokiena inori ezer aurpegiratzeko.

Baina, esandakoa adierazle argia da, gai honek gugan sortzen digun nahasmen eta zalantzena. Ondo pentsatuta, nola demontre eman diezaiekegu trataera desberdina gure seme-alabei? Iruditzen zaigu toka-noka hizketa mota baxuagoa dela, eta




higinio oartzaba

errespetu gutxi azaltzen duela besteekiko. Baina, halaber, elkarrekiko konfiantza gehiagoko harremana da, hurbilagoa, noski.

Zuka, berriz, begirune handiagoa agertu arren, distantzia edo urruntasun puntu bat ere agertzen da; muga moduko bat bi pertsonen artean. Hainbat arlotan bezala, iritzi ezberdinak dauzkagu honetan ere. Batzuk aldeko sutsuak, eta besteak gutziz aurkakoak.

Zumaian hitanoa bultzatzeko elkarlana abiatu dute erakundeek eta eskolek. Egitasmoen berri ematerakoan, besteak beste, 'transmisio etena' sumatu dute hezkuntza arloan lana egiten duten profesionalek, eta eten horri aurre egitea dute, hain zuzen, helburu.

Zumaian hasitako biderei laster Azpeitian jarraipena eman diezaieketela aurreratu du Josune Zaballak, ekintza honen sustatzaile eta Mintzola Fundazioko zuzendariak.*

galdetzen hasita, Loyola media noticias taldeak erosi ostean, zer etorkizun izango du Loiolako herri irratia?  Uztarría

Ibaiertzen aurpegi zikina



kepa susperregi

Martxoaren 17an, *Hitza* egunkarian, azken orrialdean agertu zen artikulua batek, "Kostaldearen aurpegi zikina" titulua zuenak, nire atenzioa piztu zuen.

Artikulu idazleak zioenez, Mare Urdina proiektuak hondartzak eta itsasertzak garbitzeko deialdia egin zuen martxoko hirugarren astebururako, San Jose ospatu zen asteburu luzerako, hain zuzen ere. Itsa-soa garbi mantentzea zein garrantzitsua den kontzientziaztea da Mare Urdina egitasmoaren helburu nagusia.

Ekimen bateratuari esker, irakur genezakeen, euskal kostaldeko hainbat eta hainbat txoko txukun geratuko zen aipatu asteburutik aurrera. Eta oroitzen zuenez, zikin-zikin jarraituko duen txokorik ere izango omen da.

Egun pare bat beranduago irakurri nuenez, Geta-rian 25 bat lagun elkartu zen laguntzeko.

Itsasertza ez ezik, gogokoak ditut ezagunak ditu-

dan herrietako ibaiertzak ere. Gogo onez ibiltzen naiz aspaldi honetan gure herriko ibaien inguruko ibilbideetatik, Sanjuandegiko zubiaren eta Madalenako Ermitaren artean nagusiki. Atseginak gertatzen zaizkit, bereziki, Urola ibai inguruko pasealeku eta inguruak.

Horregatik, lehen aipatutako artikulua egunero-ko ibilaldian ikusten dudana gogora ekarri dit. Hainbat lekutan 'ibaiertzen aurpegi zikina' ikustea tokatzen zaigu eta. Azoka Plazaren eta Madalenako Ermita artean gure begien aurrean ditugu: oholak, zuhaitz enborrak eta abarrak, bidoi zaharrak pare bat, plastikozko botilak, gailera kaxaren bat, hiru eltze, botilak garraiatzeko kaxa bat, zaborrez betetako poltsaren bat, erregistro tapa bat, kotxe gurgilarren apaingarriak, neumatikoak bost, poteak, botak, zerra baten heldulekua, plastikozko hodi pusketak, aterkiren bat...

Ea, gure artean ere, norbait animatzen den...*



Isiltasuna

Isiltasuna entzun egiten omen da. Eta hori egia da, batez ere naturan gaudenean. Isilik geratu, eta inoiz entzun ez ditugun soinuak entzuten dira. Askotan geuk sortzen ditugun zaratek ukatu egiten digute bestelako soinuak entzutea. Eta, hain zuzen, soinu horiek entzutea da isiltasuna. Eta ederra isiltasun horretaz gozatzea.

Kartelean "bertso-afaria" baino ez. Erriarraritz Bertsozale Elkartearen hamargarren urteurrenaren azken ekitaldia zen. Bertsolari Gazteen sariketa, bertso eleganteak, hitzaldia, bideoa eta, amaitzeko, bertso-afaria.

Oraindik isildu gabeko oihartzuna geneukan buruan azken Bertsolari Txapelketa Nagusia zela eta. BEC-eko finala hunkigarria izan zen. Baina, ez finala bakarrik. Bergarako Maialenen saioa, Iruñeko Iturriagaren kartzelakoa, Miren Amuriza eta Fredi Paiaren ofi-

zioa Gasteizen, Silveiraren Zarauzko ofizioak... Joaterik izan ez eta gerora entzundako Gaztelumendik Hendaian egindako bakarkakoa... Asko, asko, asko dira gogoratzekeo moduko saioak, eta finala bera egun osoan zehar malkoak dariola egoteko.

Bertsolari aldizkaria (txapelketari buruzkoa) iritsi eta sentimendu guzti horiek berriro egin ditugu. Oraindik Txapelketa Nagusiaren oihartzuna nabaria da bertsozaleengan. Oihartzun handia, gainera.

Azpeitiko bertso-afaria zurrumbilo horretatik aparte zegoen. Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Euzkitze ziren kantuan. Izenak esanda zalantzan jarriko du batek baino gehiagok. Hitzak argazkia ekarri zuen, frogaz bezala.

Baina kartelean izenik ez. Plazan urtetan kantatu gabe ziren Sarasua eta Euzkitze. Erriarraritzen hamargarren urteurrenean kanta-

tzeko eskaera egin genien, Andoni Egañarekin batera. Bertso-eskolakoak eta ingurukoak besterik ez ginela izango, eta festa berezia nahi genuela, etxekoa. Berrogeita hamar bat lagun edo, azkenean laurogeiren bat elkartu baginen ere. Ez propagandarik, ez grabaziorik, ez oihartzunik. Etxekoak etxeko giroan.

Elkarri hitza eman eta hitza bete. Saio bizia eta polita egin zuten. Niri oso laburra iruditu zitzaidan, baina ordu biak pasa ziren bukatzerako. Denok gustura, pozik.

Erriarraritzekoak isildu egin ginen, ez genuen izenik eman, eta isilpeko bertso-saioa entzun ahal izan genuen. Txapelketa nagusiaren oihartzunak ez zigen dena estali. Isilik egoten jakin, eta ikaragarri gozatu genuen. Jon Sarasuaren, Euzkitzeren eta Andoni Egañaren isiltasun doinuak entzun genituen. Merzi izan zuen. ✘



||||||||| Joxin Iturriotz |||

||| KANPOKO BEGIRADA |||||||||||

Azpeitia, leku ederra

Ameriketean, Nevadan, egin nituen sei urte artzain, eta hogeitamar urterekin bueltatu nintzen etxera, Markinara. Artzain egon nintzen lekua Euskal Herri txiki bat zen. Aurrenekoz ikurrina han ikusi nuen, artean Euskal Herriaren debekatuta baitzegoen. Artzaintzatik etxera bueltan, orduan hasi nintzen kantuan, eta geroztik Azpeitira sarritan etorri naiz bertsoan egitera. Azpeitiko bertsolariarekin ez ezik, Zabale eta Larrañaga trikitilariarekin ere harreman handia dut. Makina bat egunpasa egin ditut Larrañagarekin, eta hamaika aldiz joan naiz Meola jate-txera, bisita egin aitzakian afari pasara egitera.

Azpeitiko bertsolariak, guztiak, umore oso ona dute. Lagun onak dira, jatorrak. Bertsolari gazteekin baino gehiagotan kantatu dut zaharrekin: Lazkano, Agirre, Joxe Li-

zaso... Orain, gehiena bertsoan egin dudana Sebastian Lizaso izango da.

Herria maite duen gizon handi bat da Imanol Lazkano. Joxe Agi-

||| Azpeitiko bertsolariak, guztiak, umore oso ona dute. Lagun onak dira, jatorrak

||| Joxe Lizasorekin bertsoan asko egin naiz. Adarra jotzen zien denei. Mundu handiko gizona zen

rrek, berriz, bertsoarako umore handia du, beti jolaserako gogoz. Gizon jatorra da *Oranda*. Jose Luis Gorrotxategi patxada handiko gizona da. Lasai kantatuko du harek, bertsolari haundi bat. Joxe Lizasorekin, berriz, bertsoan asko egindakoa naiz ni. Adarra jotzen zien denei. Mundu handiko gizona zen, lagun asko zituena. Asko estimatzen nuen. Haren semea, Sebastian, ere bertsolari handiada. Sarritan kantatu izan dut berarekin, Nafarroako karnabaletan eta.

Korputz eguneko euritea

Hogei urtetik gora izango dira, ekaineko aurreneko igandea zen, Korputz eguna. Prozesioa egin behar zutela-eta Azpeitiko kaleetan ihi-belarra botata zegoen. Xabier Euzkitzek eta biok balkoitik balkoira egin genuen bertsoan,

eliz aurreko etxe batean. Arratsalde aldera sekulako euriak bota zituen eta kaleko belar guztiak han eraman zituen euri jasa hark.

Azpeitia leku ederra da lan gutxi egin eta ondo bizitzeko. Hasi Azpeititik eta Aratz-Erreka bitartean, jatetxe mordo dago, eder askoak. Batzuk garestiagoak eta beste batzuk merkeagoak, aukera ederra dago, era bateko zein besteko poltsikorako. Landetan askotan egin izan dut bertsoan; baita Sanjuandegi, Urrestilla, Aratz-Erreka eta Matxinbenta auzoetan ere.

Bertsoan egitera noan tokira noala, ondo joan, ondo etorri eta patxadan ibiltzea gustatzen zait niri beti. ✘

||| gregorio larrañaga |||
mañukortall
(bertsolaria, markina)



▼ **MAHAIAREN BUELTAN.**

Sebastian Lizaso, Imanol Lazkano, Jose Luis Gorrotxategi, Anjel Larrañaga, Joxe Mari Aranalde –gai-jartzaile eta epai lanetan aritua– eta Joxe Agirre.

Izan zirelako dira

Erniarraitz Bertsozale Elkarteak hamar urte bete ditu aurten eta izan zirenetik direnerako bidea argazkitan jaso du Uztarriak. 📎 A. Agirrezabala 📍 Erniarraitz



► **NESKAK NAGUSI.**

Eniarraizko harrobian emakumeak indartsu datoz. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatzen hasi aurretik hogeitaka gazte Meolan biltzen dira urtero, afari pasara egin eta giro onean bertsoan egiteko.



▲ **BERTSO-ESKOLAK, GARAI BATEKO EUSKALTEGIAN.**

1999ko Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren inguruan sortu zen bailaran bertsozale elkartearen sortzeko asmoa, eta geroztik Eniarraitzek bere ibilbidea egin du. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Amets Arzallus, Beñat Lizaso, Xabier Azpillaga, Ruben Gorrotxategi, Haritz Etxeberria *Ministro*, Jon Lizaso eta Josu Oiartzabal *Xenpelar* ikasleak eta Loidisaletxe maisua. Zutik, Jokin Uranga. Eniarraitzen sorreran, Arzubian garai bateko euskaltegiaren egoitzan.





▲ **BERTSO PARRANDA.**

Bi urtez behin Bertso Parranda antolatzen du Erriarraitzek. Inguruko bertsolari 'ez ofizialentzako' aukera ederra eskaintzen duen lehiaketa da. Hirunakako taldeak osatu eta taldeen arteko saioak egiten dira Azkoitia, Azpeitia, Errezil eta Zestoako tabernetan. Argazkian, Manuel Agirretxe *Ezuitza*.

► **PUNTAKO BERTSOLARIAK.**

70 hamarkadan aurrera, Euskal Herrian plaza gehienak egiten zituzten bertsolariak Jon Lopategi, Jon Azpillaga eta hiru azpeitiarrak –Joxe Agirre, Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano– izan dira. Argazkian, Lazkano, Gorrotxategi eta Agirre.



▲ **AZKUNE, LEHENDAKARIA.**

Laxaro Azkune da Erriarraitz Bertsozale Elkartearen lehendakari, sorreratik, 1999tik. Gai-jartzen askotan aritu da.



▼ IA FINALEAN.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletik puntu bakarrera geratu zen Jokin Uranga, 2005ean.



▲ HAMAR URTE, HAMAIIKA EKINTZA.

Erniarraitz sariketa, bertso parranda, Txapelen omenezko saioa, Azkoitiko udaberriko saioa... Urtean zehar makina bat saio eta ekintza antolatzen ditu Erniarraitzek. Goiko argazkian, bertso eskolako bertsolariak pare bat hiru bat trikitilari talderekin, gabon eskean.

▼ ERNIARRAIZKO FAMILIA.

Erniarraitz Bertsozale Elkartearen hamargarren urteurrenean Erniarraizko kideek argazkia atera dute. Argazkian ageri diren bertsolari eta bertsozaleen artean zaharrenak laurogei urtetik gora ditu; gazteenak, berriz, 16. Argazki honetan falta dira Joxe Lizaso eta Fede Aranbarri, biak hilda. ✘



Apustuaren saltsa gazi-gozoa

Tolosan Kantabriko nola, Azpeitian ere herri kirolen inguruko jokoeak izan dituzte eta badituzte txoko bereziak: Pastorkua eta Mendizabal. 📧📍 Mailo Oiarzabal

Jokoa ez da errenta. Hala dio esera zahar ezagunak. Eta jokoaz eta apustuen munduaz asko dakitenak bat datoz esaldia-
ren muinarekin. Hala ere, apustu egitea, asko zein gutxi jokatuta, serio edo erdi txantxetan hasi eta oso serio bihurtu arte, Euskal Herrian sakon errotutako ohitura izan da. Aditza iraganean erabilia hobeto dagoela iritzi diote batzuek, galduta edo galbidean dagoen joera dela uste dute eta. Baina, gauzak asko aldatu direla onartu arren, herri kirolen bueltako apustu giroari eutsi nahian segitzen dutenak ere badaude.

Azpeitiko zezen-plaza joko eta apustu askoren lekuko izan da. Zezen-plazaren tiradizoagatik edo alderantziz, herriko eta inguruetako jendeen ohiturengatik, baina apustu munduan izan du eta oraindik ere badu sona Azpeitiak. Jokatu ez ezik, apustu eta joko asko lotu ere, Azpeitian lotu izan dira. Garai batean, Pastorkua tabernak egiten zion itzaltxoa horrelakoetan Euskal Herrian aspalditik erreferente den Tolosako Kantabriko tabernari. Inazio Merketegi *Pastor* zenaren esku-
tik, herri kiroletan zeresana ematen zuten aiz-

Azpeitiko
zezen-plaza da
Euskal Herrian
ahari jokoei eusten
dien bakarra. 18-20
ahari jabe
dabilta

kora zein harrijasotze joko bat baino gehiago lotu zituzten Pastorkuako jangelan. Xehetasunik ez du gogoan Javier Merketegi, Inazio-
ren seme gazteenak, "baina apustu asko izaten zirela, bai. Orduan Azpeitian apustu asko jokatzeko ziren, bai aizkoran, bai... Berdin zen, gainera, apustua nafarren artean bazen ere, Azpeitira etortzen ziren jokatzera. Gogoratzen naiz, gainera, baina ere, Mindegiak apustuak hemen egiten zituela. Galtzen bazuen, hurrengo egunean berriz ere benga, handik

sei hilabetera jokatzeko beste apustua egitera". Simon Merketegi *Pastor*-ek ere gogoan dauka Inazio anaiak Migel Mindegiarekin zuen harremana: "Mindegia gureak lagun handia zuen, ondo arreglatzen ziren haiek".

Gaur egun Pastorkua taberna apustuen zirkuituetatik at dago, baina Azpeitian bertan, beste taberna batean, Landetako Mendizabal, lotu izan dituzte herriko zezen-plazan jokatu diren azken apustuak: Jose Felix Zubizarretak eta Alex Txikonek 2009ko martxoan jokatu zutena, Joseba Otaegik eta Josu Aizpuru *Errekalde*-k urte bereko maiatzean jokaturikoa, eta Otaegik eta Txikonek joan den otsailaren 28an jokatu zutena.

Jose Martin Mendizabal *Mendizabal I* aren esanetan, ordea, "orain apustu 'naturalik' ez da jokatzeko". Joan den otsailean bete ziren 33 urte [Pastorkua ere garaitu horretan ireki zuten], Adunatik Azpeitira etorri eta Virtudes Uzkudun emaztearekin Mendizabal taberna ireki zutela. Orduan utzi zuen harrijasotzea, bost bat apustu jokatu ondoren. "Famosoena", Agustín Ostolazaren kontrakoa; Pas-
kualtxo, Usategieta edo Alzate ere izan zi-



Martin Mendizabal ahari baten korrikaldia zaintzen. Elosiagako Benteronekuan animaliak entrenatzeko zirkuitu moduko bat dauka prestatuta.

tuen aurkari, gehienetan Azpeitiko zezen-plazan, eta Tolosakoan ere bai. “Orain marka egitea da gehiago. Guk lanteri hori ez genuen; guk markak ezkutatu egiten genituen, ez azaltzera, eta oraingoek, berriz, dena azaldu egin behar dute”, dio Mendizabal I.ak, gaur egun apustu ‘naturalik’ zergatik ezin den egin azaltzeko. Eta azalpena honela borobiltzen du Martin semeak: “Hauek garai batean joaten ziren dirua etxera eramatera, handik edo hemendik, hortik jaten zutelako, hortik bizi ziren, eta hortara dedikatzen ziren. Orduan, azaltzen bazinen, apusturik ez zeneukan jokatzetik gero. Apusturako kontrarioak bilatzea komeni zen garai hartan”.

Mendizabal gaztea ere bat dator aitaren garaietatik hona gauzak asko aldatu direla. “Gaur egunean harrijasotzaile batek bere lanpostua dauka aparte, ez dauka horretatik bizitzetik. Apustura dedikatzea alferrik da; jendea ere gutxiago joaten da, eta apustua egitea mirari bat da gaur egunean. Apustu serio bat, bi onenek elkarri jokatzeko, oso zaila da”, dio. Ikusleak erakartzeko, berriz, “jende berria, gaztea, eta lan desberdina” behar direla uste du, parte hartzen duten kirolariak

lehen-lehen mailakoak ez direla izango kon-tuan hartuta, beti ere.

Ahariai tranparik ez

Kirolarien arteko demak alde batera utzita, bai Mendizabal eta bai Pastorkuaren izenak zezen-plazan egiten den beste jarduera batekin estuki lotuta egon dira —eta Mendizabalen kasuan, dago—, hau ere apustuen inguruan gauzatzen dena: ahari jokoak. Orain dela urte batzuk, Inazio Merketegi eta Jose Martin Mendizabal bi ahari zale nagusienetakoak ziren, eta bien arteko apustuek ikusmina sortzen zuten beti.

Herri kiroletako apustuak lotzearen bitartekaritza eta lekukotzari utzi eta hasi zen ahari jokoekin Inazio Merketegi zena. Javier semeak gogoratzen duenez, “esaten zuen aharietara seguruagoa zela [apustua], azken batean ahariai ez zuelako gezurrik esaten eta tranparik ez zuelako egiten. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena...”. Uste du bestelako apustuekin “desengainuren bat hartuta” hasi zela aita ahariai hazi eta horiekin plazan jokoak egiten.

“Hura gozatu egiten zen, eta ni ere bai, sa-

soiarekin”, esaten du Simon Merketegik. Izan ere, Simon ibiltzen zen anaiaren laguntzaile, ahariai zaintzen eta entrenatzen, eta zezen-plazaren ondoan zuten baratzean lanean ere bai; tabernarako eta ahariai elikatzeko izaten zen ortu lana. “Ahariai maiteak zituen”, esaten du Javier Merketegik aitari buruz, astear-teero azokatik egiten zuen erosketa amak nola ‘errebisatzen’ zion gogoratuz: “Tabernarakoak zirenak atera eta besteak kotxean uzten zituen, gero txabolara eramateko. Eta akordatzen naiz, behin baino gehiagotan, gure amak ‘geldi hemen’ esan, kotxean begiratu eta aharietako zen jenerotik hartzen zuela, tabernarako zirenak baino hobeak izaten zirelako. ‘Jo, aharietako jateko hobeak eramaten duk, tabernara datorren jendeari emateko baino?’, esaten zion”. Aita berrogeitik gora ahari edukitzera iritsi zela kontatzen du, baina “normalean hamabost-hogei tarte horretan ibiltzen zen”.

Inazio Merketegi zenaren zaletasunak ez zuen jarraitzailerik aurkitu inguru hurbilean, baina bai Jose Martin Mendizabalenak. Martin semeari txikitatik sartu zitzaion afizioa barruraino —“zortzi urterekin hasi nintzen ja aha-▶

►ria hartu eta mendira pasierara joaten”, kontatzen du— eta orain bera da Azpeitian ahari-zale bakarra. Elosiagan, Benteronekua base-rian, dauzka ahariak, eta haiek zaintzen ematen ditu egunero ordu luzeak. Gaur egun hirurogei ahari inguru dauzka, denera. “Hogei bat ahari daude apustua jokatzeko —azaltzen du—. Gainontzean, ikusi egin behar hemendik urtebetera, bi urtera, zer izango diren; gazteak, etorkizuna ikusi behar”. Ahari guzti horien mantenua eta zaintza, merkea ez izateaz gain, lana ere bada. Baina Mendizabal gazteak afizioa izan. “Neuk jana ematen diet eta neuk erabili behar izaten ditut. Hortik ez dago etorkizunik, eta ez dago morroirik”, kontatzen du. Baina ahari jokoan inguruan sortzen den giroa, betidanik ezagutu izan duen hori, garrantzitsua da Martin Mendizabalen zat. “Nire jiran dagoelako girorik gehiena, bere poz bat ematen dizu; tabernan ere mugimendua ikusten duzu, jendea etortzen da... Guretzako saltsa da hori”, dio.

Ahariai zaindu eta entrenatzea zer den ondo asko daki Simon Merketegi *Pastor*-ek ere. Jokorako ahari ona izateko, lehendabizi “arrazak behar du”, esaten du: “Jeneralean, onetik onak irtetzen du; txarretik ona, zaila da. Gero, gobernatzen-eta ere jakin egin behar izaten da, ibiltzen eta...”. Alde horretatik, ez ditu begi onez ikusten gaur egun ahariai prestatzeko erabiltzen diren metodo “modernoak”. “Jendea alfertu egin” dela dio: “Orain makinan-eta ibiltzen dituzte. Nire gazte denboran, zenbat korritzen nuen, hartu aharia eta, txakurra bezala atzetik, danba-danba... Antzematen nion, eta anaiari esaten, ‘honekin ez zagok jokorik galtzerik, ezta...’; eta jokatu, eta irabazi. Asmatu. Atzetik dijoala eta,

III “Neuk jana eman eta neuk erabili behar izaten ditut. Hortik ez dago etorkizunik, eta ez dago morroirik”

MARTIN MENDIZABAL

aharizalea

AURKARIAK

Inazio Merketegi ‘Pastor’ eta Jose Martin Mendizabal aurkari sutsuak izan ziren urteetan, ahari jokoak tarteko. Hortik kanpora, ezin esan lagunak zirenik, baina harremana kanpotik ikusten zena baino hobea zela bat datoz bi aldeak. “Horixe, irabazi egin nahi, bata edo besteak irabazi egin nahi”, azaltzen du Jose Martin Mendizabalek. “Dema handia zeukaten hauek. Ahari munduan kristoren pikea”, dio Martin semeak, baina gero aita Pastorkuara afaltzera-eta “askotan” joaten zela gaineratuz. Pastoren seme Javier ere ideia beretsukoa da: “Gogoratzen dut apustua jokatu eta handik astebetera igoal Mendizabal familiarekin afaltzera etortzen zela gurera. Maitasun-gorrito harreman berezia bazegoen, baina tamainakoa. ‘Enpaztuko diat, bueltatuko diat’ eta horrelakoak elkarri esan bai, baina hortxe

ahariai, ondo dagoenak, arkumeak bezala trikitian, jolas egiten dio. ‘Hau duk sasoiadukana’. Gaur zein, gaztea, horrela, lehen bezala ibili?”, galdetzen du.

Dirurik ez, segiziorik ez

Martxoko azken igandean hasi eta ekain bukaera arte, “sanpedroak arte”, martxan dira berriro igandeko ahari jokoak Azpeitiko zezen-plazan. “Normalean izaten da urrian hasi eta segidan dena sanpedroak arte. Baina nola pixka bat bajatuta dagoen, otsaillean eta martxoan ez dugu jokatzeko, eta urtarilean ere ez”, azaltzen du Martin Mendizabalek.

Herri kirolen bueltako apustu kontuak bezala, argi dago Azpeitian bakarrik egiten diren ahari jokoan gaur eguneko egoerak zirikusi gutxi duela joan den mendeko erdialde-razuenarekin. Ahari jabeak urritzen ari dira, eta ikusleak ere bai. Martin Mendizabalen

esanetan, “garai batean 500-600 lagun” elkartzen ziren jaieroa ahari jokoak ikusteko, “sarrekin bakarrik, urte osorako pentsutarako” iristen omen zitzairen aharizaleei. Orain ez dago horrelakorik: 80-100 artean mugitzen da ikusleen batezbestekoa.

“Segiziorik ez dago, dirurik ez baitago”, dio Mendizabal gazteak. Eta guztiz bat dator Simon Merketegi ere ikuspegi horrekin. Anaia hil eta berak erretiroa hartu ondoren, erabat aldenduta dago ahari jokoaren mundutik. “Ez naiz joan ere egiten, ez pisura, ezta ahari jokora ere. Lehen bai, lehen jaiero”. Ahariaren zaintzaren eta apustuen kezka pisorik gabe “orain, lo lasai” egiten duela aitortzen du. Hala ere, nostalgia puntua ere antzematen zaio, sasoi bateko apustuen inguruan sortzen den giroa eta mugimendua gogoratuz. “Garai haietan, orain dela 50-60 urte, dirua orduan jokatzeko, ahari jokoan ere bai”, dio. Pastor-en ustez, oraingo jendeak ez dauka garai batekoak adina dirurik, eta hortik etorri da, neurri handian, apustuen jaiatsiera: “Lehen jendea joan bai [ahari jokoetara], eta dirua jokatu ere bai. Orduan dirua zen, eta gazte jendea joan egiten zen. Eta gaur, zer? Inor ez. Gaur ja dirurik ez dago, garai haietan bezala, apusturako. Horrek errenditzen du jendea, ezak”.

Diru kontuak direla, ohitura aldatetarako direla edo dena dela, herri kiroletako apustuek, pilotakoek, ahari jokoek... gero eta indar txikiagoa dutela aitortzen dute gertutik ezagutu dituztenek eta oraindik ere “saltzan” jarraitzen dutenek. Jokoa errenta ez dela aitortzen duten bezalaxe. Garai hobea ezagutu zituztenek penaz begiratzen diote. Beste batzuk eusteko ahalegian dabilta.★

III “Orduan dirua zen, eta gazte jendea joan egiten zen. Eta gaur, zer? Inor ez. Gaur ja dirurik ez dago apusturako”

SIMON MERKETEGI

aharizale ohia



Apustu elektronikoa

||| Apustu tradizionala, Euskal Herrian nagusiki herri kirolekin eta pilotarekin lotutakoa, beren artekari eta guzti, momenturik onenean ez dagoen honetan, beste apustu molde batzuk hedatzen hasita daude gure artean ere. Euskal Herrian ez ezik, munduko beste bazter askotan ere apusturako zaletasuna bada, izan ere, eta horren lekuko bilakatzen ari da, besteak beste, Internet. Apustu etxe handiek txoko polita aurkitu dute nonbait sarean.

Gai eta kontu zelebreenak ere apusturako gai bilakatu arren, kirolarekin lotutako apustuak dira Interneten ere nagusi. Eta ordenagailua ez, baina tramankulu elektronikoa

artekari lanetan jartzen duten apustu etxeak ere badira. Euskal Herrian hiru enpresa dira lokal publikoetan, eta bereziki tabernetan, apustuak egiteko makinak jartzeko baimena eskuratua dutenak. Horietako bik, RETA-k eta KiroJokoa-k, makinak dituzte Azpeitiko hainbat tabernetan. Bi enpresen datuen arabera, guztira bederatzita dira gaur egun Azpeitian makina horietako bat dutenak.

Ikusi egin beharko apusturako bide berri horrek zer harrera duen gurean. Tabernari batzuek makina jarri eta atzera kendu ere egin dute, eta beste batzuk jartzeko asmotan dabilta.



Apustuak egiteko makina, Garoa tabernan.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

APIRILAK 24 larunbata - 11:00

MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN > 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIAITZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN



Ohiturari eutsiz

Artzaintzaren ofizioa ikasi nahi duten gazteei eskolak emateaz arduratzen dira Nikolas Segurola eta Jose Ramon Orbegozo, Arantzazun. 📌📍 Nekane Zinkunegi

Tekonologia aurrerapenak, ingeneritza ikasketak eta modernizazioaren munduko hainbat kontu presente dauden uneotan ere, bada hainbat gazte euskaldunon tradiziozko langintzei eusteko gogoz. Behar horri erantzuna emateko sortu zen Gomiztegi Artzain Eskola eta bertako betaranoena den Nikolas Segurola eta ardi en ardura duen bere iloba Jose Ramon Orbegozo elkarrizketatu ditu Uztarriak Arantzazuko paraje ederretan.

1939ko martxoaren 27an jaio zen Nikolas Segurola Matxinbentako Largarate baserrian. Berau, Azpeitiari dagozkion lur-sailetako azken baserria omen da. "Gerraren amaierarekin eta ardi artera jaio nintzela esan nezake", dio irribartsu. Betidanik egon izan dira ardiak euren baserrian eta euren artean ohitua da Segurola txiki-txikitatik. Hamabi urte zituela, Arantzazuko fraileetara joan zen ikastera. Harritzekoa bada ere, honakoa dio berak: "nik uste baserria eta familia uzteak baino, ardiengandik banantzeak tristura handiagoa eman zidala". Bost urtean egon zen Arantzazun eta ondoren etxera itzuli zen berriro.

1950ean, Rufino Idiazabalek Gomiztegi baserria saldu zien Arantzazuko fraileei eta 1953an jarri ziren lehen aldiz bertan bizitzen. Baserria fraile ikasketetan ziharduen jendea-ri kafesnea, salda edota beste edozer eskaintzeko baliatzea erabaki zuten. Hala, behiak, txerriak eta oilo batzuk jarri zituzten.



Orbegozok Arantzazuko Gomiztegi eskolako artaldearen ardura du. Argazkian, ardiak jezten.

Nikolas, hogei urte zituela, 1959an, itzuli zen Arantzazura eta Gomiztegin bizitzen jarri zen. Abereen kopurua urteen poderioz goraka joan zela gogoan du eta "sei mila oilo, mila eta berrehun txerri eta hogeita hamar bat behi" izatera iritsi zirela kontatu du. 1978. urte ingurua zen, abere kopuruak bere puntu gorena jo zuen garaia, hain justu. Une horretan "politika aldaketa etorri zen". Fraile ikasketek balioa galdu zuten eta ondorioz, Arantzazun zegoen hainbat ikaslek etxera itzuli beharra edota unibertsitateetara teologia ikastera joan beharra izan zuen. Horrenbeste aberetatik ateratzen zen etekina alferrikakoa zen, baina Gomiztegi alde batera uzteak pena ematen zien fraileei.

Artzai-Gazta Elkartearen sorrera

Hala, hausnarketa baten ostean, "harremanetarako etxe" bezala mantentzea erabaki zuten eta 1982an jarri ziren ardiak. Frankoren osteko gobernu berriarekin, hoberen zegoen sektorea hori zen. Tarte horretan, 1981. urtean, Jose Ramon Orbegozo Nikola-



Nikolas Segurola eta J. Ramon Orbegozo osaba-
ilobak, Arantzazuko Gomiztegi baserrian.

sen ilobak, Arantzazura joan beharra izan zuen. Jaiotzez kaletarra den arren, txikitatik Largaraten hazia da Orbegozo ere eta ezin hobeto ezagutzen zuen artzaintzaren mundua. "Osabak begia galdu zuenez, bere ordeko gisan etorri nintzen Arantzazura lau bat urterako" kontatzen du.

80. hamarkadan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa bere baitan biltzen dituen Artzai-Gazta Elkartea sortu zen ardi-gaztaren kalitatearen inguruko lanketa burutzeko. "Une gozoak bizi zituen artzaintzaren munduak eta langintzaren nolabaiteko profesionalizazioa beharrezkoa zela ikusten genuen"

Artzain ikasleak

||| Osaba-iloben esanetan "era askotako jendea igaro da hemendik hamairu ikasturteotan. Oro har, batzuek beste hogeita bost urte inguruko gaztez osaturiko taldeak dira. Euskal Herriko, Txileko, Extremadurako, Madrillgo... ikasleak igaro dira hemendik. Jaiotzetik etxean ardiekin ohituak daudenak zein inoiz ardirik gertu izan ez dutenak. Hala ere, harroen egon gaitzkeen kontua, ezin hobeto betetzen dugun *zelestino* paperarena izan daiteke. Inongo okerrik egin gabe esan dezakegu urteotan sei edo zazpi bikote sortu direla gure eskolan. Eta ez edozein eratakoak, gainera, oraindik ere batuta jarraitzen duten bikoteak".

adierazi du Segurolak. Hortik etorri zen Gomiztegi Artzain-Eskola sortzeko ideia.

Eskola 1997an sortu zen eta orduan itzuli zen Orbegozo Arantzazura. Orditik gaur egunera arte, eskolako artaldearen ardura du bere gain. "Hamairu ikasturte daramatzagu gazteei artzaintzarako pausoa ematera laguntzen", dio Orbegozok. 6-7 hilabeteko ikasturteak dira. "Asteko lehen lau egunetan, eskolan bertan klase teorikoak izaten dituzte eta ostiraletarako berriz, artegietara irteerak antolatzen ditugu", kontatzen du Orbegozok.

Eskolaren jardunaz balorazio positiboa egiten dute osaba-ilobek. "Etxean ohituraz ardiekin aritua den edozeinek, duen jakituria-ri hemengoa gehitu dakioke bere onurarako. Artaldea gobernatzen, gaixotasunak sahisten eta elikaduraren zein genetikanen berri izaten erakusten" da. Gainera, ikasturtearen baitan, praktiketarako aste bat sartzen da. Bakoitzak etorkizunean nolako artzaintzamoldea gauzatu nahi duenaren arabera, era horretako baserri batera bideratzen dituzte.

Artzain izatearen langintzari dagokionez, ez dela kontu erraza aipatu dute biek. "Ardiak ezin dira artzainaren baldintzetara egokitu, artzainak berak jakin behar du artaldearen erara moldatzen". Segurokaren esanetan, Artzain-Eskolara ikasle gisan joan nahi dutenei, zergatik doazen galdetzen die. "Sarritan entzuten dudana kontua da kaleko estresetik libratu eta mendiaz gozatzea eta gazta egiten ikastea nahi dutela". Baina, "artzaina izatea mendian artaldeari begira egotea eta gazta egitea baino zerbait gehiago" dela dio.

Artzaintzaren etorkizuna

Egun ogibide gisan artzaintzak etorkizunik duen galdetuta, "zenbaitentzat bai" erantzun dute. "Berezko nahia eta gaitasuna ezinbestekotzat" jotzen dituzte eta "konbentzimentu osoz lan eginez gero, diru-laguntzei esker aurrera egitea zilegi" dela diote. "Izugarrizko inbertsioak egin beharra dago artzaintzatik bizi nahi bada", dio Orbegozok. Baina, aipaturiko lanerako prestutasunari instituzioetatik datozen diru-laguntzak gehituz gero, "horri buelta urte gutxitan" eman dakiokela dio osabak.

Horretarako sortu zen Gomiztegi Artzain-Eskola, tradizionala izan arren, etorkizunean ere ziurrenik beharrezkoa izango den langintza modu duin batez gauzatzea posible egiteko. Finean, helburua, artzaintza eredu-garria izatea da. Etorkizuneko artzainek, beren negozioerako onuragarri diren erabakiak hartzen dituzten enpresarioen gisan jokatzen ikas dezatela. ✨





**AZPEITIKO ERAKUSLEIHO
HANDIENA** JARRI PUBLIZITATEA UZTARRIAN

uztarría

hrt AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

||| jaione unanue |||



||| leire goenaga |||

Hemen ERE

Jaione Unanue. Aste Santua gainean-eta gustura egongo haiz. Hi ez haiz prozesioetara joango eta mendiko plana izango duzue, ezta?

Leire Goenaga. Bai, baina etorriko gaitun prozesiora. Hendaiatik Irunera Aberri Egunean egingo denera. Hik ere jai izango dun, ezta?

Jaione. Nik opor luzeak, indefinidoak. Batzuen kontratuak bezala.

Leire. Oraintxe bazter guztietan ez dun giro. Corrugados ere, EREn.

Jaione. Langileen baldintzak denbora gutxian hankaz gora ari ditun gelditzen.

Leire. Baina batzuk orain ERE irabazi ederrak egiten ariko ditun.

Jaione. Egoera txarrenetan beti egoten ditun batzuk nondik dirua aterako. Ikusi bes-terik ez zagon Azkoitiko lau enpresari horien kasua.

12.000 euro

Leire. Beti pentsatzen dinagu horrelako gauzak ez direla hemen gertatzen, baina...

Jaione. Pertsonen esplotazioa beste garai batzuetako kontua zela ematen din, baina gaur egun ere leku askotan presente zagon. Lantegietan, putetxeetan, ostalaritzan... Seguru nagon denoi etortzen zaigula burura kasuren bat.

Leire. Egoera txarrenean daudenetaz aprobetxatzea beti izan dun errazago. Eta batzuek ondo aprobetxatzen dinten egoera hori.

Jaione. Azkoitiari enpresari horiek 12.000 euro kentzen zietenan etorkinei paperak lortzeko. Eta diru hori gutxi ez balitz, sei bat hila-bete lanean jardun behar beraiantzako.

Leire. Atxilotu egin ditizten, ezta?

||| **JAIONE.** “Ikusiko dinagu zer zigor erortzen zaien azkoitiar horiei”

||| **LEIRE.** “Badakin, hemen dirudunen delituak ez ditun gogor ordaintzen”

Jaione. Bai, baita magrebiar bat ere. Non-bait bitartekari lanak egiten zitinan.

Leire. Beti egoten dun norbait bere etxeko-ak ere salduko dituena.

Jaione. Ikusiko dinagu zer zigor erortzen zaien azkoitiar horiei.

Leire. Badakin, hemen dirudunen delituak ez ditun gogor ordaintzen.


Jaione. Egia esateko, ez dinat inon irakurri zer gertatu den langileekin. Akaso honezkero ostikoz bidali ditizten euren herrialdera. Nola ez, 12.000 euro gutxiagorekin.

Leire. Eta nora joango ditun ba kexatzera? Bertan egoteko eskubiderik ere ez diten eta.

Jaione. Gure arazorik txikiena beraien arazo handiena baino larriagoa dun beti.*



Presoen aldeko kantua

Erniarraitz Bertsozale Elkarteak saio berezia antolatu du hilaren 23rako, 'Dagozkien eskubideen jabe Euskal presoak Euskal Herrira' lelopean. Sei bertsolari arituko dira kantuan.  Ainitze Agirrezabala

Presoen eskubideen alde bertso saio berezia antolatu du Eniarraitz Bertsozale Elkarteak, hilaren 23rako. *Dagozkien eskubideen jabe Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean sei bertsolari ariko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Xebastian Lizaso, Jokin Uranga eta Haritz Etxeberria *Ministro*. Gai-jartzaile lanetan Nekane Zinkunegi errezildarra ariko da.

Erniarraizko lehendakari Laxaro Azkunereren esanetan, "euskal presoek eta iheslariek, eta haien etxekoek bizi dituzten bizi-baldintza gogorak salatu eta jendea sufrimendu eta egoera gordin horretaz kontzientziatu nahi dugu".

Saioan bildutako dirua Presoen Aldeko Topagunearentzako izango da. Sarrerak alde aurretik erosteko aukera jarri dute eskual-

III DATUAK

- III **Zer.** Presoen eskubideen alde bertso jaialdia.
- III **Eguna.** Apirilak 23 (ostirala). III **Ordua.** 22:30
- III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.
- III **Antolatzailea.** Erniarraitz Bertsozale Elkarteak.

deko hainbat herritan: Azpeitian Orkatx, Txarrantxa, Jim Clark eta Amaia tabernetan; Azkoitian Xakela eta Zurten; Zestoan, Koioiten; Zumaian Inpernupen; Getarian Arralden eta Zarautzen, berriz, Arranon. Nolanahi ere, saioa hasi aurretik Izarraitz pilotalekuko leihatilan sarrera eskuratzeko aukera izango da. Sei euro kostako da alde aurretik erosita; leihatilan, oster, zortzi euro.*

III PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

6 bertsolari. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Xebastian Lizaso, Jokin Uranga eta Haritz Etxeberria *Ministro*.

6 eurotan sarrera. Alde aurretik erosita; leihatilan 8 euro. Sarrerak salgai: Orkatx, Txarrantxa, Jim Clark eta Amaia tabernetan.*



2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazle Maialen Lujanbio ere kantari arituko da hilaren 23ko saioan. III EKE

III BESTERIK

1 II. Motor jaialdia

Motor eta garai bateko kotxeen erakusketa izango da, 11:30etik aurrera. Aurretik, 10:00etan, Sanjuandegin elkartu eta motorrean buelta emango dute. Gero, hamaiketako izango da, eta bazkaria Ongi-Etorri erretegi. Arratsaldean, berriz, Perversion taldearen kontzertua (19:30).

III **Eguna.** Apirilak 10 (larunbata). III **Ordua.** Egun osoa III **Tokia.** Xanjuandegi. III **Antolatzailea.** XJ Auzolanean Taldea

2 Kontzertua Orkatzen

Orkatx tabernan kontzertua eskainiko dute.

III **Eguna.** Apirilak 16 (ostirala). III **Ordua.** 22:00 III **Tokia.** Orkatx taberna. III **Antolatzailea.** Orkatx Kultur Elkarteak.*

3 Sexualitate tailerra

Tailer honen helburu nagusia parte-hartzaile bakoitzak bere buruarekin eta gorputzarekin duen harremana hobetzea da. Eurne Mendizabalek, Ana Elosegik eta Libe Yurrebasok emango dute. Hastapeneko saioak maiatzaren 8an eta 15ean izango dira, eta sakontzekoak apirilaren 17 eta 24an. Matrikula 5 euro da.

III **Eguna.** Apirilak 17 eta 24 (larunbata). III **Ordua.** 10:00 III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua. III **Antolatzailea.** Emakumeen Jabetze Eskola.

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
 - Logotipoa, papertegia...
 - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
 - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
 - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
 - Prentsa bulego lanak
 - Komunikazio kanpainak
 - Mailing-ak...

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	R	A	I	N	A	T	I	K	A	●
O	I	●	K	E	A	●	A	D	A	K	O
B	●	A	L	O	I	K	●	R	S	●	●
A	N	I	F	●	R	A	T	E	Z	U	Z
B	E	A	●	K	L	A	B	E	A	R	●
●	U	D	N	A	M	I	●	L	O	H	O
U	T	U	R	Z	●	A	N	A	●	I	●
A	N	A	R	A	R	A	●	●	●	●	●
I	N	A	Z	A	E	A	●	●	●	●	●
●	G	●	B	●	U	●	G	●	●	●	●



HITZ GURUTZATUAK

K	A	N	A	D	A	M	A	R	●	●
A	I	●	K	A	O	T	U	A	●	●
U	G	A	N	D	I	●	T	T	●	●
T	A	B	A	R	A	N	●	S	●	●
I	Z	I	B	I	●	L	E	G	●	●
S	I	B	●	I	O	I	M	L	●	●
G	U	●	G	I	G	A	R	I	●	●
R	A	R	A	R	I	N	A	R	●	●
A	K	●	U	T	O	T	O	N	●	●

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Apirilak 23 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZER DAGO SOBERAN/ZER DAGO FALTAN.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN MARTXOKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



JOXE AGIRRE 'ORANDA' BERTSOLARIA



IRABAZLEA



Olatz Orbegozo Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 115. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Olatz Orbegozo, saria eskuetan duela.

ETXEZ ETXEKO ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago



Larchago krintza 2006 GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO ARDO KARTAN

Krintza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Mendabelarra

Txikitan konturatu nintzen etxeokandre askok baserri inguruan mendabelarra biltzen zutela, hurrengo egunean mendazko erratzak azokan saltzera eramateko. Munduan mila menda espezie baino gehiago ezagutzen dira. Beti izan du estimu berezia gure kulturaren, pobreen eta aberatsen etxeak girozten baitzituen.

Duela 4.000 urtez geroztik mota askotako propietateak dituela esan izan da; batzuk frogatuak, baina beste batzuk ez. Hori bai, gure eskuetan bere hostoak estutzen baditugu usain atsegina eta bizia geldituko zaigu.

Etxean mendabelarraeduki nahi badugu, lurreen landatu eta sarri ureztatzea nahikoa da. Toki laiotz eta itzaltsuetan azkarrago hazten da.

Hainbat naziotan ez bezala, gu ez gara mendabelarra jakietan ibiltzearen oso zaleak. Zaporeak indartzeko, saltsak prestatzeko eta ozpinak usaingoatzeko balio du. Esteetako ezbeharrak arindu, gorakadak saihestu eta ahoko ultzerak sendatzen ditu.

Era askotako osasun arazoak konpontzeko mendabelarraren barietate desberdinak erabili izan dira Medikuntza Naturelean. Baina, egia esan, kasu gehienetan ez dute bere eginkizuna betetzen eta irudipen sukartsuen kontuak dira.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

OIHAN AMEZUA argazkilaria



1. Argazkiak koloretan edo zuri beltzean?

Kontrastei dagokienean, saturatuak ditut gustuko.

2. Gaez ala egunez?

Azken aldian gaez.

3. Karretea, digitala...

Digitalean, baina horrek kalte egin die salmentei.

4. Argazkiak ukituta?

Eztabaida zabala da hori. Ukitzearen aldekoa naiz; ez, ordea, muntaien aldekoa.

5. Ustekabea ala aurrez prestatuta?

Estudioan zainduta dago den-dena. Naturaltasuna, ordea, puntu fuertea da.

6. Argazkirik onena?

Gaez, Getariko arratoian lau orduko saioa: Ipar izarraren inguruan izar guztiak mugitzen.

7. Plano gogokoena?

Argazkirako lehen planoak. Paisaiarako panoramikoa.*

 **Ainitze Agirrezabala**

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

José de Anstec, 17
AZPEITIA Tel.: 943-810664

Ibai Ondo, 28
AZKOITIA Tel.: 943-850445

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

 Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamaldiak:
943-15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA



ORKATZ KULTUR ELKARTEK

Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

uztarria

 **domusa**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

|||BLOGAK / ARGAZKIA|||||||

▲ **NEGUAREN HAGINKADAK.**

Edozein urtarotan argazkizaleen paradisu bihurtzen da Urbasa. Inguru hartan ateratako neguko hainbat argazki zintzilikatu ditu Agirrek Uztarriaren atarian. "Horrenbeste egun bustirekin paraje hartan ere jendea nazkatu" dela adierazi du. ||||| **juan joxe agirre** |||||

|||EFEMERIDEAK|||||||

1561

Eliza altxatzeko asmoz. Urrestillako biztanle jabeek eskritura sinatu zuten Mendatasoro lursaila erosteko.

1791

Herritarrak kexu. Urretxutik kartak ekartzen zituena erabat atzeratzen zen, geldialdi handiak egiten baitzituen Azkoitian. Hala, neurriak hartzea erabaki zuten.

|||INKESTA|||||

Poltsa berrerabilgarria erabiltzen al duzu?

Bai. %53,13.

Ez. %25.

Batzutan. %21,88.

|||Hileta erlijiosoa ala zibila. Zein aukeratuko zenuke?

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkestak |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Bi gurpilen gainean

Heldu nahi zuen metara iristeko egitekoak garbi zituen gizona zen Santi Lazkano txirrindularia, eta horietan zentratuta atzera egingo ez zuena. 📌 Uztarria

Santi Lazkano txirrindularia-rena da Uztarria Komunikazio Taldeak pasa den urteko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako laugarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena, Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena eta Valentina Agirre emaginarena hirugarrena.

Nekane Zinkunegi kazetariak idatzi du biografia eta maiatzaren 1ean aurkeztuko du Uztarriak. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakur dezakezuen.

Anaia maitagarria, edo gazteena zelako maitatuena, berezia, geldirik egoten ez diren horietakoa.

Senar ona eta bere alabentzat munduko aitarik onena. Bere ogi-bidea zela medio, urte askoan etxetik kanpora denbora ugari igaro beharra tokatu zitzaion arren, etxean zegoenean familiarekin egoten eta gozatzen zekiena.

Lagun eta kide leiala, hitzekoa, laguntzeko prest zegoena.

Txirrindulari ona, langilea eta saiatua, bizikleta gainean taldekideen babesik epelena eta aurkariei errespetua sorrarazten ziena. Behin lehia amaituta, guztien laguna zen hurbileko pertsona. Heldu nahi zuen metara iristeko egitekoak garbi zituena eta horietan zentratuta, atzera egingo ez zuena.

Pertsona aurrerakoa, iniziatibaduna, beti egitasmo berriak buruan zituena eta horietan



Gipuzkoako txapeldun afizionatu mailan, 1967an.

sinestuz aurrera egiten zekiena. Inguruko jendea inplikatzeko eta lanean gustura sentiarazten ezin hobeto asmatzen zuena.

Halakoxea izan zen Santi Lazkano errejidard txirrindularia. Bere sendiko eta gertuko lagunek hala gogoratzen dute behintzat. Umetatik lagun-min eta ondorenean lankide izan zuen Jabier Zinkunegi herrikidea ere, harritu egiten omen zen Santik nahi zuen hura horren garbi izan eta lortzeko edozein egiteko nola egoten zen prest ikusita. Gainera, irabaztea izan ohi zuen helburu, baina horretarako inor zapaldu gabe edota beste inoren ahaleginaz aprobetxatu gabe. Zinkunegik gogoan du inguruan, taldean bertan ere, bazituela Santik kideez askorik arduratzen ez ziren berekoiak. Santiri sarri egokitu izan zitzaion taldeko buruari laguntzen ibiltzea, eta horretantxe aritzen zen, horretarako prestatu behar bazuen, horretarako prestatzen zen.

Iruñeara joan-etorria

Gogoan du behin, Italiako Giro baterako prestatzen ari zela Santi. Pasaian bizi zen eta entrenamendu garaietan giro aldaketak onuragarri izaten direnez, Azpeitira jo zuen aste-beterako. Italiara joateko hegazkina hartu behar zuela eta, entrenatzerik izango ez zenez, bezperan zerbait gogorra egitea pentsatu zuen. Hala, Jabierrekin hitz egin eta egun batez entrenatzeko Iruñeatik joan-etorria egi-



1. Afizionatu mailan, Gervaisen oroimenezko erlojupekoa irabazi ostean ateratako argazkia. Hernanin jokatu zen, 1966. urtean. **2.** Asturiasko itzulian, lasterketaren ondoren sardinak eman zizikieten jateko (1976). Eskuinekoa da Lazcano, Santesteban txirrindulari asturiarrarekin.

LIBURUXKA

DATUAK

Orrialdeak. 50.
Neurriak. 10 x 8 zentimetro.
Tirada. 1.200 ale.
Prezioa. 5 euro (Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute).

17. PRODUKTUA

Aurreko 15 liburuak. *Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarako prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendí gida, Loiolarik ez ballitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre.*

CDa. *Urolaldeko bertso zaharrak.*

tea erabaki zuen. Jabierri motorra hartzeko agindu zion eta egun hotzak zirenez, arropa dezente jantzita irten zen Azpeititik.

Gutxi gora-behera Azpirozera heltzeko zenbat denbora beharko zuen aurreikusitako eta ordu horretarako motorrean hara agertzeko esan zion. Hitz emandako lekura heldu aurrexeagotik harrapatu zuen Jabierrek Santi. Baina esan bezala, Azpirozera joan eta hantxe itxaron zion, iristean arropa batzuk kendu zitzen. Hauek berari eman ostean, aurrera jarraitu zuen.

Hurrengo elkargunea, Iruñean zuten. Hara biak heldu eta apur batean egon ostean, itzulerako bidean zegoen iturri batean jarri zuten hurrengo zita. Jabierrek han itxarongo zion botilatxo ur freskoz beteta. Berrito indarrak

hartu eta Azpeitiraino itzuli zen hurrengo irtealdian.

Erraz etsitzen ez zuen pertsona

Kas taldeko afizionatuen sailean zegoenean izaniko lehia batean, erraz etsitzen ez zuen pertsona zela argi utzi zuen. 1968. urtean Valladoliden jokatzeko proba batean, hainbat oztopo bata bestearen atzetik gailentzeko gai izan zen. Lehen aldia zuen 150 kilometro baino gehiagoko karrera batean parte hartzen zuela eta nabarmendurik zioala, istripua izan eta gurpil bat apurtu zitzaion. Berau konpontzen denbora dezente galdu ostean, berrito ere pelotoia harrapatu zuen eta baita pelotoi-buruan zioan taldetxo ere. Helmugara-

ko hamar kilometro falta zirenenan, gurpila zulatu zitzaion. Jadanik ezinezkoa zen hori konpondu buruan zioan taldea berrito harrapatzea. Ondorioz, erretiratu egin behar izan zuen, baina galdu arren, bere buruarekin harro sentitu zen egun hartan.

1985eko otsailaren 3an hil zen moto istripuan, Aizarnazabaldik Zarautzera bidean. Horren maite zuen tramankuluaren gisan, bi gurpileko beste ibilgailu batek eraman zuen mundu honetatik. Horixe zuen patua nonbait, bi gurpilen gainean ibiltzeak eman zizkion zorriona eta une gozoak. Bi gurpilen gainean zebilela izoratu zuen belauna eta ezin izan zuen profesional bezala gehiago gozatu. Agur, txirrindularitzarako beharrezkoa zuen indarra bizitzara egokitzen jakin zuen fenomenoari.✱

KIRURI

J A T E T X E A
 Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
 Tlfnoa.: 943 81 50 08
 Faxa.: 943 15 03 62

arte eta dizainu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
 (haurrak) 17:30/19:00
Pintura 17:30/19:00
Talla 19:30/21:00
 Jose Artetxe kalea, 3
 669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Koh Tao

OSAGARRIAK
 Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

LUBA
 aholkularitza
 laborala, fiskala, kontablea
**- AHOHKULARITZA FISKALA,
 LABORALA, KONTABLEA
 - FINKEN ADMINISTRAZIOA**
 Enparan kalea, 45
 Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
 e-mail: luba.ase@euskalnet.net

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-2-3-4-5-15-22-28	6-10-11-14-21-27-30	7-12-17-18-23-29	8-19-24-25	9-13-16-20-26
Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 811274	943 815974	943 080258	943 811350	943 811949

GAUEZ

1-2-3-4-5-12-13-14-15-16-17-18-26-27-28-29-30	6-7-8-19-24-25
Eizagirre (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811274	943 850660

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 28an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

	943 08 06 88
--	--------------

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALETXEA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



PSIKOTEKNIKOAK

Baigera I eraikinean psikoteknia-proba egiten dute, ostegunero, 18:30etatik 20:30ak bitartean. Gidatzeko eta ehizeko baimena lortzeko osasun-ziurtagiria eskuratzen da bertan.

8-19-24-25	9-13-16-20-26
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 811350	943 811949

9-22	10-11-23
Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 851235	943 851966

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

20-21
Azpiazu (Azkoitia).
943 852989

NIKOLAS 'LANDARRAIN'

txotxaz arduratzen da

“ sagardoa suabea dago aurten, edateko erraza ”

Sagardo barririk irekitzen lau urte daramatza Añotan. “Krisirik ez” dutela antzeman adierazi du. 📌 Ainitze Agirrezabala

Zer moduzkoa ari da izaten aurtengo sagardo denboraldia?

Oso ona. Krisirik ez da antzematen, jendea beste urtetan bezala dator. Aurtengoan, dagoeneko, bost bat aldiz bete dugu 300 bat lagun sartzen diren jangela.

Zer da zure egitekoa?

Garai batean barririk txotx edo egurrezko ziri batekin ixten ziren eta nagusiak *txoootx!* kantatu, ziria kendu, denak inguratu eta edaten zuten. Sebo pixkatekin ziria igurtzi eta ixten ziren upelak. Jendeak, ordea, nahi zue-nean irekitzen zituen barririk. Orain, kanilako giltza moduko bat izaten dut eta txandaka barrika guztiak [18 dituzte] irekiz joaten naiz.

Astean zenbat egunetan joaten zara?

Ostiraletan afaritan, larunbatetan bazkaritan eta afaritan, eta igandetan bazkari garaian Añotan izaten naiz upelak irekitzen. Sei bat hilabetez ariko naiz. Urtarrilaren 15ean hasi genuen sagardo denboraldi berria eta ekainaren 20an bukatuko dut nire jarduna. Egun horretan Gipuzkoako Herriarteko Pilota txapelketako finala jokatu da eta txapelkunak hona etorriko dira afaritara.

Nolatan hasi zinen?

Bertako nagusia [Luis Beloki] betiko ezaguna dut. Haren semea eta nirea elkarrekin dabilta ikastolan eta goizero umeak eskolara eramane eta gero elkarrekin gosaltzen dugu. Jende asko izaten zela sagardo denboraldian eta barririk irekitzen lagunduko nion esan zidan. Hiru-lau bat urte daramatzat sagardo upelak irekitzen eta nire laguntza estimatzen du.

Nolakoa dago aurtengo sagardoa?

Ona, suabea. Edan eta edateko gogoa ematen duen horietakoa.

Nolakoa da zuri gustatzen zaizuna?

Goxo puntua duena. Sagardoa txotxetik zuzenean edatea gustatzen zait; botilakoa gehiegi eginda egoten da.

Sagardoa edanda asko txoratzen al da jendea?

Erne ibiltzen naiz eta sagardoarekin txorakeritan dabilenari hura ez dela jolaserako esaten diot, edateko dela eta lasai ibiltzeko. Konfidantza pixkat eman eta abusatzen hasten zaizkizu. Errespetua jartzeko serio antzean ibili beharra dago.✳



1

1. Sagardo upela irekitzen, Elosiaga auzoko Añota sagardotegian. 2. Lanean hasi aurretik kafea hartzeko ohitura du. 3. Añota atarian.



2



3

Zipaioak aljeriako gerran*

Zaharra naiz. Frantsesek ez dakite denbora galtzen dutela eta hala nahita galarazten diedala. Ez zaizkit axola bizitze-hilteak: etsaiek tortura nazakete, ez dut aitortuko. Gainera, zer dakit? Ni torturatzen nauten artean ez dituzte gazteagoak torturatzen. Goiza gela hutsean joan zait. Biluzik jarri naute, barrabiletan jo. Gero, telefono-hari bat ahoan, bestea koskoiletan. Elektrizitatea gorputza gaindi kurritzen denean, hiltzen den ardia bezala zapartatzen gara. Lehenengo aldian buruan min izugarria eman dit, eta giharretan oinazea. Zaila naiz, eta ofizial galdekataileak ez daki bere jokoari ohitzen ari naizela. Alferrik joan zaie goiza. Larruzko gerrikoarekin jo naute. Nire larru zimurtuari zer? Lotuta nagoenean eta aurpegian jotzen nautenean dut min gehien.

Txarrena ez da frantses galdekatzailea, ofiziala. Hari begitartean ikusten diot zer gertatzen zaion. Ez du egiteko horretan iraungo. Gauza bat da gizon sendo, gihartsu, morroskoa izatea, eta beste zera bat, oso bestelakoa, inor tormentatzea...

Hain zuzen, beste morroi batek ematen dit beldurra. Kaboa da, ez ofiziala, gure herrian jaiotako oin-beltza, ez Frantziakoa. Manzano deritzo. Manzanok, amaren altzotik atera berri den mutikoa dirudi, bizarra ordez ile mehea, emakume begi eztiak, erraz gorritzen direnak, koxkorra eta flakoa da... baina inori min egiten egiazko buruzagia. Gure ohitura, gure hizkuntza ezagutzen ditu. Urde horrek oraindik orain aitorrarazi dit. Gure etxekoen helbidea zekienez, hamalau urteko iloba torturatu dit, aurrean. Gauean ilobak ihes egin du, ordea, eta nik ez aitortu.

Etsaien armadara, sari gisa

Joan den astean, beren jolas batean erabili gaituzte. Frantses erregimentura ofizial berria heltzen den aldiro, jolas bat egiten diote, gu jostailu. Nahiz eta gauden gotorlekura berebilean etor litekeen, hemendik lau kilome-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Martxoaren 4an bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak Ibarren. Hiru aldiz 'Cara al sol' entzunarazi zieten

trora jaitsarazten dute eta mando gainean igota gure presondegira dakarte zuzen. Horrela, azken aldian, ofizial gaztea gure patiora sarrarazi dute: lau preso ginen haga batzuei sokaz loturik, neguko haizean ikaran... Ikusgarria! Ederrena, erdian, ikatz goritan, burdin barra, aliketak berotzen. Ofizial gazteari preso bat ekarri diote burdina bero harekin erre, galdeketa egin ziezaion. Ofizial berria zurbildu da, ez du komeria ulertu. Baina ekarri dioten gerrillari gaztea, ikusitakoaz harrিতa, hitz egiten, aitortzen eta ezagutzen zituen guztiak esaten hasi da. Badakit salatari ahul horrek zer egingo duen: frantsesa dakienez, etsaien armadan sartuko dute, sari bezala.

(Joan den hilean, martxoaren 4an, bi gazte atxilotu zituen Ertzaintzak Ibarren. Kartelak jartzen ari omen ziren. *Cara al sol* entzunarazi zieten hiru aldiz. Libre irten ziren bi gazteak. Omen.)

*Txomin Peillen. Aldjezairia askatuta. *Otsolak gara* ipuinetik.*



Antonio Rafaniello HORTZ KLINIKA

Marcelo Borlle
Kolegiatu zk. 390

Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA

Astelehenetik ostiralera

9:30 - 13:00
15:30 - 19:30



Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

 horzkari
hortz osasun klinika



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

KONPONDU ZURRUNGEN ARAZOA
ZURRUNGENTZAT ETA LOALDIKO APNEARENTZAT TRATAMENDUA

OrtoApnea, zurrungarik ez egiteko ahoko aparatua

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

www.grupohorzkari.com

udaberria-uda 2010



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobeak
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



HP COMPAQ 610 GMA X3100

- Prozesadorea: Core 2 Duo 2 GHz T5870 64
- RAM Memoria 4 GB
- Disko gogorra: 320 GB
- Pantaila: 15,600"
- Sistema Eragilea: Windows 7 Premium
- Bateria: 5 ordu
- Pisua: 2,490 kg
- DVD±RW DL
- Zenbakidun teklatura
- WebCam kamara
- Bluetooth



499 euro
b.e.z. barne